

PROPOSAMENA

# BOR-BOR

BORTZIRIETAKO  
EUSKALTZALEEN  
MUGIMENDUA

# AURKIBIDEA

NOLA AILEGATU GARA HONAINO.....3. orrialdean

ZER EGIN NAHI DUGU.....4. orrialdean

ZERTARAKO?.....5. orrialdean

EGITURA.....6. orrialdean

## Funtzioen arabera

1/ Talde Eragilea

2/ Komunikazio Taldea

3/ Herri mailako egitura

4/ Batzarra

5/ Arlokako eta egitasmoetako taldeak

## Konpromiso mailaren arabera

FUNTZIONAMENDUA.....14. orrialdean

Egiteko moldeak garrantzia du  
Nolako talde eragilea nahi dugu  
Nolako lantaldeak nahi ditugu

EGOITZAREN AUZIA.....17. orrialdean

MANKOMUNITATEAREKIKO HARREMANA.....19. orrialdean

DIRUZAINNTZA.....22. orrialdean

LANKIDETZA.....23. orrialdean

EGITURAREN DIAGRAMA.....24. orrialdean

AITZINAGO EZTABAIDATZEKO.....25. orrialdean

# NOLA AILEGATU GARA HONAINO?

Euskara Mankomunitateak, 30 urteko ibilbidearen ondotik, gogoeta saioa egin zuen, beharra baitago orain arteko eredia berrikusi eta berritzeko.

Ondorioen artean, euskalgintza soziala berraktibatzeke beharra nabarmentu zen.

BOOR  
BOOR  
BOOR

# ZER EGIN NAHI DUGU?

Euskara talde bat, izaera soziala duena, irekia, zabala eta herritar euskaltzalez osatua.

BOOR  
BOOR  
BOOR

# ZERTARAKO?

- Euskararen erabilera sustatzeko bortz herrietan.
- Herritarren kontzientzian eragiteko, herritarrak ahalduntzeko, eta euskararen alde egiteak duen garrantziaz ohartarazteko.
- Euskaldun eta euskaltzaleen elkarlanerako gune izateko.
- Udalerrri euskaldunen eta arnaguneen izaerari eusteko.
- Gizartearen eraldaketa jomugan duten prozesu eta mugimenduekin bat egin eta aldaketak eragiteko —bide horretan, ortzi-mugan izanen dugu gizarte plural, justu, iraunkor, berdinzale eta euskalduna—; eta horretarako egokituko diren arloetan ekintza jakinak proposatu, sustatu, bulkatu edo/eta antolatzekeo.
- Euskaraz bizitzeko baliabideak sortzen eta zabaltzen laguntzeko.
- Komunitatea sortzeko.

# EGITURA

## A/ Funtzioen arabera

### 1/ Talde eragilea:

#### Osaera:

- Borondatezkoa.
- Ahal dela, bortz herrietako kideekin osatua (ez da izanen nahi-taezko baldintza).
- Epe jakin batera mugaturiko parte hartzea (txandakatze sistema).

#### Funtzioak:

[Eragite funtzioak]

- Norabideak eta lan ildoak marraztea.
- Ideiak biltzea arloetako taldeetatik, egitasmoetan dabilen jendea-rengandik eta kanpotik, ekarpenak jasotzeko.
- Ekintza jakinen inguruko proposamenak biltzea, gauzagarriak ote diren aztertzea, giza baliabideen eta baliabide materialen beharrak aurreikustea, eta epeak, lekuak eta arduradunak zehaztea.
- Koordinazio funtzioa. Bertzeak bertze, erreferente bat izendatzea, herrietako taldeekiko harremanaz eta komunikazioaz arduratu da-din.
- Azpitaldeetako laguntzaileak arrantzatzea.

[Funtzio administratiboak]

- Plangintza egitea.
- Egindako lanak neurtzea eta baloratzea.
- Kudeaketa funtzioa.
- Aurrekontuak eta kudeaketarekin zerikusia duten gaiak batzarrera eramatea.
- Urteroko batzarra prestatzea.
- Hartuko dugun legezko egituraren arabeko estatutuak egin eta errespetatzea, ardurak eta karguak banatzea, eta gure jarduerak administrazioaren aitzinean hartuko duen lege babesaren jarraipena egitea.
- Jarduera ekonomikoaren jarraipena: sarrera eta irteeren kontabilitatea eramatea, zuzentasunez eta gardentasunez, eta ogasun publikoaren aitzinean egin beharreko izapideak kudeatzea.
- Dirulaguntzak eta bertzelako diru iturriak bilatzeko plangintza egitea, baita horien zuriketa ere.
- Harremanak bideratzea administrazioarekin eta bertze erakundeekin.

## 2/ Komunikazio taldea:

### Osaera:

- Komunikazioaren arloan ezagutza eta eskarmentua duen jendez osatua.
- Talde ttikia, baina eraginkorra eta aktiboa.

### Funtzioak:

- Komunikazio plangintza orokorra diseinatzea (barnekoa eta kanpokoa), talde eragileak zehazturiko lan ildoen eta helburuen arabera.
- Barne komunikazioa: taldeko geruzen arteko komunikazioa kudeatzea eta informazioa modu eraginkor eta neurtuan ematea, partaideak ito gabe.
- Kanpo komunikazioa: taldeak antolatutako ekintzen, egitasmoen eta bertzelakoen berri ematea herritar guzietan, eta, aldi berean, gisa honetako talde batek zer-nolako lana egiten duen eta zer funtzio dituen transmititzea.
- Komunikazio euskarriak (irudiak, bideoak, kartelak...) sortu eta zabaltzea.
- Taldearen sare sozialak kudeatzea.
- Hedabideekiko harremanaz arduratzea.



### 3/ Herri mailako egitura:

#### Osaera:

- Herri bakoitzak bere oinarri soziala antolatu beharko du moduren batean, herri horretako gaiak lantzeko.
- Euskara Batzordeetako kide izan direnek parte hartzeko aukera izanen dute. Borondatea dutenak erakartzen saiatu behar da.
- Herriko talde bakoitzak bere ordezkaria izanen du.

#### Funtzioak:

- Egitasmoak herrian gauzatzea, herri bakoitzean egin nahi diren ekintzak antolatzea, etab.
- Arlokako taldeekin bitartekari lana egitea (herrietako taldeetako ordezkariak, bereziki).

#### **4/ Batzarra:**

Gutienez urtean behin bilduko da; hala ere, elkartzeko maiztasuna beharren arabera egokituko da.

#### **Osaera:**

- Lantalde eta norbanako guzien bilgunea.

#### **Funtzioak:**

- Erabaki estrategikoak, norabideak eta ildoak erabakitzea.
- Urteko egitasmoak eta planak eztabaidatu eta onartzea.
- Aurrekontuak eztabaidatu eta onartzea.
- Ardurak eta taldeak berrikustea.
- Ebaluazio lanak egitea.
- Taldearen inguruko gogoeta lana egitea.

## 5/ Arlokako eta egitasmoetako taldeak

### Osaera:

- Lan ildoen arabera sortuko diren lantaldeetako kideek osatuak.

### Funtzioak:

- Egitasmo iraunkorretan (kirola, merkataritza, eskolaz kanpoko jarduerak, etorri berrien euskalduntzea eta euskarara hurbiltzea, haur eta nerabeen aisialdia, sare sozialak...), edo ekintza jakinetan (Korrika, Euskaraldia...) aritzea.
- Arlo jakin bat lantzeko garaian, ongi neurtzea zenbaterainoko gaitasuna dugun hartan eragiteko, eta, hori kontuan hartuta, helburu errealistak finkatzea, alferrikako frustraziorik ez sortzeko.

## **B/ Konpromiso mailaren arabera**

### **1/Erdigune berdea:**

Parte hartze aktiboa, iraunkorra eta eskuzabala, taldeari eskaini beharreko ahalegin kuantifikatua denbora tarte baterako. Talde eragileko kideak eta egitasmo jakinetako arduradunak ikusiko ditugu konpromiso maila honetan.

### **2/Eraztun laranja:**

Parte hartze aktiboa eta gutxieneko jarraitutasuna eskatuko duena. Lan ildoetako lantaldeetan, egitasmo jakinetan eta herrietako taldeetan parte hartuko dutenak sailkatuko ditugu hemen.

### **3/Eraztun urdina:**

Ekintza puntualetan parte hartuko dutenak (Euskaraldia, Korrika...) sailkatuko ditugu hemen, muskulua behar denean arituko direnak, baita gurekin elkarlanean arituko diren eragileetako kideak ere.

## ***Euskara Taldeko kideen konpromisoaren izaera***

- ***Konpromiso irekia.*** Kide bakoitzak aukera izan behar duen nahi duen mailan kokatzeko bere burua.

- ***Konpromiso hitzartua.*** Hartutako konpromisoa Euskara Taldearekin egindako hitzarmen moduko bat izanen da, eta konpromisoa bete beharrekoa izanen da, bi arlotan:

1/ Ahaleginean: kide bakoitzak egin beharreko lana ataza edo egin-kizunetan.

2/ Iraupenean: kide bakoitzak noiz arte beteko duen aukeratutako konpromiso maila.

## C/ Izaera juridikoa

Bor-bor Bortziritako Euskaltzaleen mugimendua kultur elkarte gisa erregistratuko da administratiboki.

BOR  
BOR  
BOR

# FUNTZIONAMENDUA

## Egiteko moldeak garrantzia du:

- Bilerak zaindu behar ditugu; goxo eta eroso lan egin behar dugu ahal dela.
- Kide eta herri guziak kontuan hartuko dira, bilera lekuak eta orduak zainduz.
- Jarrera abegikorra agertu behar dugu, jendea gustura senti dadin lanean. Tarteka, alderdi ludiko-gastronomikoa ere zainduko da.
- Lehenik entzun, enpatiaz jokatu, eta jendeen beharrei erantzuten saiatu beharko dugu. Elkarlan zintzoa bilatuko dugu kideen eta eragileen artean.
- Bortziriak dira gure jokaleku naturala: bortz herrietan egin eta eragin behar dugu, eta bortz herrietako kideen artean elkarlana sustatu. **Eta herrien artean desorekarik sortzen ez dela zaindu. Betiere, kontuan hartuko ditugu herri bakoitzaren ezaugarri eta behar espezifikoak ere.**
- Ahal dela, lantalde bakoitzean herri desberdinetako taldekideak bildu behar ditugu. Ezin denean, eskualde ikuspegiari eta komunikazio loturari kontuko diegu. **Izan ere, partaideak ez zamatzen saiatu beharko dugu, herri ttikietan bereziki, eta funtzionamendua kideen ahalen eta aukeren arabera egokitzen.**
- Taldeetan sartzeko, horietatik ateratzeko eta talde batetik bertzera mugitzeko malgutasuna izan beharko dugu.
- Konpromiso maila desberdinak izanen dira, baina kideak ez ditugu konpromiso mailaren arabera antolatuko. Lan ildo edo egitas-

moak aitzinera eramateko sortuko diren taldeek izan beharko dute funtzionamendurako ardatza, eta konpromiso maila desberdinetako jendea koordinatzen asmatu beharko da.


## Nolako talde eragilea nahi dugu?

- Hilabetean behin bilduko da, gutienez.
- Belarriak eta begiak erne ibili beharko ditu, ideiak eta ekarpenak jasotzeko arlotako taldeetatik, egitasmoetan dabilen jendearengandik eta kanpotik.
- Informazioa modu samur eta egokian hedatuko du taldeko kide guzien artean.
- Lana proportzionalki banatuko du, bai talde eragileko kideen artean, eta bai bertze kideen artean, bakoitzak hitzartutako konpromisoaren arabera.
- Zirikatzailea izanen da, dinamikoa, eskuzabala, ardurak hartu eta betetzen dituen...



## Nolako lantaldeak nahi ditugu?

- Askotarikoak adinaren, esperientziaren, jatorriaren, lanbidearen eta generoaren arabera, hiztun berrien parte hartzea ere zainduta, betiere.
- Herri guzietako kideek osatuak, ahal dela.
- Konpromiso maila ezberdinetako kideak onartu eta haien arteko elkarlana sustatuko dutenak.



# EGOITZAREN AUZIA

Euskarak eta euskalgintzak gure bizien erdigunean kokatze aldera, zaindu beharreko kontua da kokapen fisikoa ere. Euskalgintzak erdigunean bere lekua behar du, eraginkorragoa izateko. Ideia ez da Euskara Mankomunitatearen egitura administratiboa lekualdatzea, bertzerik gabe.

- Espazio fisikoak, egoitzak edo eraikinak gaien eta egitekoen lehen-tasuna irudikatzen du.
- Sinergiak sortu eta ugaltzen ahal dira euskalgintzako eragileen (Euskara Taldea, euskaltegia, bertso eskola, mankomunitatea, etab.) eta proiektuen (Solalaguna, Solasean, Euskaraldia, Korrika, Errigora, harrera, lan mundua, etab.) artean, izan sozialak edo izan instituzionalak.
- Hala, euskalgintzako egitasmoak toki berean bildu, eta leku bat emanen zaie egoitza finkorik ez duten taldeei eta proiektuei.
- Antolatzen diren jarduerari azpiegitura egokia eskainiko die.
- Bertze eragile batzuekin partekatzen bada espazioa, dinamika berriak eta eraginaren biderkatzea gertatzen ahal dira (etorri berriak, feministak, elikadura burujabetza, etab.).

- Egoitza lortzeko lana pizgarri izaten ahal da, helburu kolektibo bat izateak beti indartzen baitu talde dinamika. Betiere, kontuan hartu behar da balitekeela egoitza lortzeko prozesua epe luzekoa izatea. Nolanahi ere, ez da ahortzi behar egoitza lortzea ez dela helburu bat bere hartan, baizik eta bitarteko bat, eta, beraz, ezin da izan partaideak erretzeko arrazoi bat.

- Egoitza herri jakin batean egoteak ez du erran nahi Euskara Taldearen ekintza guztiak han egingen direnik. Alderantziz, Euskara Taldearen presentzia bermatu beharra dago bertze herrietan ere —bilera tokiak txandakatuz, ekitaldiak borts herrietan antolatuz etab.—, eta eskualde ikuspegia beti gogoan izan. Horretarako, aukera bat izaten ahal da egoitza nagusia non egonen den erabaki ondotik bertze herrietan nolabaiteko Euskararen Txokoak sortzea, hau da, egoitza ttikiagoak.

# MANKOMUNITATEAREKIKO HARREMANA

Bi mailatako harremana izanen da Euskara Taldearen eta Bortzirietako Euskara Mankomunitatearen artean: batetik, Euskara Taldeak ordezkaritza izanen du Aholkularitza Batzordean, eta, bertzetik, eragile eta bultzatzaile lana egin beharko du.

**1. Euskara Taldeak Aholkularitza Batzordean (AB) parte hartu edo/eta eragin beharko du.** Izan ere, AB tresna ezin hobea da euskalgintza sozialak mankomunitatearen erabakietan eragin ahal izateko:

- Euskara Taldea arduratuko da Aholkularitza Batzordearen zenbait kide Euskara Taldean integratzeaz edo/eta Euskara Taldeko kide zenbait Aholkularitza Batzordean sartzeaz.
- Lotura jarraitu bat bermatu behar dugu Euskara Taldearen eta ABren artean.
- Aholkularitza Batzordeko kideen artean, belaunaldi aldaketako prozesu bat izanen da, eta, horretan, Euskara Taldeak dagoenaren eta datorrenaren arteko zubi lana egin beharko du, euskalgintza sozialaren presentzia bermatuz. Hori bai, aldaketa gauzatu aitzinetik, mankomunitatearen estatutuak egokitu behar dira, gaur-gaurkoz zehazten baita hautetsi ez diren Euskara Batzordeetako kideek osatu behar dutela AB.

- Aholkularitza Batzordeak euskalgintza sozialaren eta instituzionalaren arteko harremanerako organoa izan behar du. Eta euskalgintza sozialak (Euskara Taldeak) foro horretako agenda markatzeko ahalmena eta gaitasuna izan beharko luke.

- Aholkularitza Batzordeak dituen eskumenak (ABren txostena beharrezkoa da mankomunitateak gehiago osoz hartu behar dituen erabakietarako) baliatu behar ditugu euskalgintza sozialaren eragina sustatzeko Mankomunitatean.

- Euskara Taldea sendotu eta herritarren eta instituzioen aitzinean nolabaiteko zilegitasuna irabaziko duenean, ez dugu baztertzen Euskara Taldearen ordezkari ofiziala Mankomunitatean egituratu dadila proposatzea, nolabaiteko kuota eskatuz Aholkularitza Batzordean.

**2. Eragite lana:** ez dugu ahortzi behar azken batean mankomunitateak markatzen duela ABren erritmoa; hori dela eta, harreman zabalago bat behar da mankomunitatearen eta Euskara Taldearen artean:

- ABn parte hartzea ez dugu azken helburutzat ikusten, aukera edo tresna gisa baizik. Ezin dugu ABren eginkizuna mankomunitateak bete beharreko izapideetara mugatu. Ezinbertzeko aholku txostene-tan parte hartzea bakarrik ez, jarrera dinamiko, sustatzaile eta erai-kitzailea izatea da gure bokazioa, mankomunitatearen plangintza gauzatzen, hobetzen eta ideiak biltzen lagunduta, bertzeak bertze.

# DIRUZAINZA

- Diru sarrerak:

- Dirulaguntzak: Mankomunitatea, Kultura, Euskarabidea (Nafarroako Gobernua)

- Autofinantzaketa:

- iraunkorrak
- puntualak

- Taldearen diru beharrak oraindik ez daudenez finkatuak, finantzaketa bideak egokitu egin beharko dira aitzinago, behar horien arabera (bazkietza kuotak ezartzeko aukera).

- Jarduera ekonomikoaren jarraipena: sarrera eta irteeren kontabilitatea eramatea, zuzentasunez eta gardentasunez (gastuak kontrolatzea etab.).


# LANKIDETZA

- Euskara Taldeak sinergiak sortuko ditu gisa anitzetako bertze eragileekin, bai eskualdean aritzen direnekin (kultur eta kirol elkar-teak, udalak etab.), eta bai Nafarroa eta Euskal Herri osoan eragiten dutenekin: Euskaltzaleen Topagunearekin, adibidez. Hori bai, garaian garaiko aukera eta beharren arabera landuko dira lankidetzaren harreman horiek.


BOOR  
BOOR  
BOOR



# EGITURAREN DIAGRAMA



-  1. konpromiso maila
-  2. konpromiso maila
-  3. konpromiso maila
-  Kideak

-  Egitasmoak:  
Epe luzekoak: aisialdia, harrera...  
Puntualak: Korrika, Euskaraldia...

# AITZINAGO EZTABAIDATZEKO

- Zertarako? atalean: Euskara Taldeari dagokio euskaraz bizitzeko baliabideak eskaintzea? Badu edo izanen du horretarako gaitasunik?

- Nola egingen dugu talde eragilearen txandakatzea? Zer sistemaren araberak?

- Proposatuta da herrietako taldeetako kideak lekuko elkarteetan sartzea, euskararen inguruko lanketa elkarte horietan txertatzeko. Egiteko modukoa da?